

Chillidaren alde guztiak lantzeko programa osatu du haren omenezko museoak abuzturako



Museoak zabaldu berri ditu atek / EFE

Chillida Lekuk publiko mota guztiei zuzendutako kultura eta hezkuntza programazioa prestatu du eskultorearen pentsamendura eta obrara hurbiltzeko bide desberdin bat jorratu ahal izateko bisitariek

DV Donostia

Miércoles, 31 julio 2019, 16:45



'Chillida ezagutzuz' lau eguneko tailerra emango du Maushaus arkitektura eskolak, txikienek ere museoa ezagutu ahal izateko. Sigma Project saxofoi laukoteak musika promenade bat eskainiko du abuztuaren 7an museoaren kanpoaldean; Inés R. Artola izango da ekitaldiaren dinamizatzailea.

Publiko guztientzako askotariko jarduerak aurkeztu ditu Chillida Lekuk abuztu honetarako.

Museoak zabaldu berri ditu ateak, eta berriz ireki ondoko lehen uda honetan, Chillida Lekuk publiko mota guztiei zuzendutako kultura eta hezkuntza programazioa prestatu du. Horrela, hainbat diziplina izango dira museoaren espazioetan, hala nola dantza, musika eta yoga, eta, gainera, bisitariak aukera izango dute udan Lurra Cafén afaldu, eta gaueko bisitaldiak egiteko. Jarduera horiei esker, eskultorearen pentsamendura eta obrara hurbiltzeko bide desberdin bat jorratu ahal izango da, eta,aldi berean, haren ibilbidean beti presente ze goen gai bat sustatu: hainbat diziplina artistikoren arteko elkarrizketa.

Saxofoiak eskulturen artean

Abuztuaren 7an, museoak bere ateak publikoari ixten dizkionean, musikariek garaikideenari bide emango zaio 'Sigma Project' laukotearen eskutik. Musikaren abangoardian nazioartean oihartzun handienetako duen taldea da Alberto Chaves, Andrés Gomis, Ángel Soria eta Josetxo Silguero saxofoi joleek osatutako laukotea.

2016an, taldeak 'Eduardo Chillida, Sonoritateak' izeneko erakusketaren itxiera ekitaldian parte hartu zuen, Wroclawen (Polonia), eskultorearen obrarekin elkarrizketa estua zekarren kontzertu batekin.

Esperientzia hura oinarri hartuta, laukoteak musika promenade bat eskainiko du museoaren kanpoaldean. Ikuskizun horretan, bere errepertorioa interpretatuko du, baina, era berean, beste egile batzuen zenbait pieza ere joko ditu. Musikariek batera, Inés R. Artola ere bertan izango da.

Erakusketetako komisarioa eta musikologoa da, eta Eduardo Chillidaren eta beste autore batzuen pasarteak irakurriko ditu musika piezen artean.

Haurrentzako arte eta arkitektura laborategia

Abuztuaren 5etik 8ra, goizez, neskato eta mutikoek hartuko dute museoa

Maushausen eskutik. Haurrentzako arte eta arkitektura laborategi bat da Maushaus, Donostian kokatua, eta Carlos Arruti eta Anabel Veronak sortua. Ez da egun solteko programa bat; lau goizez, Eduardo Chillida eskultore donostiarraren obra gozatu, bertatik bertara ikusi eta ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Eskulturak ukituko dituzte eta horiek egiteko erabili diren material eta testura desberdinak esploratu ahal izango dituzte. Gainera, espazioak bizi eta bere gorputzekin jolasteko aukera izango dute.

Programak irauten duen bitartean, eskultoreak erabiltzen zituen zenbait teknika probatuko dituzte, eta, haren obra ezagutuko dute marrazketaren, paperez egindako collage-aren, tintaren, buztinaren eta eskulturaren bidez.

Lehen egunean, Haizearen orrazia saila hartuko dute ardatz: neskato eta mutikoek beren eskuak behatzen ikasiko dute, eta marraztu egingo dituzte haiek, atzamarrak inguratzen dituen hutsa harrapatzen saiatzeko. Horrez gain, paperezko collage-aren teknikarekin esperimendatuko dute, eta, gero, hirugarren dimentsiora eramango dute, hiru dimentsioko collage-ak sortzeko.

Bigarren egunean, museo osoa beraiantzat izango dute; 'Besarkada' sailaeen gorputza izango duena ardatz. Hirugarren egunean, Gipuzkoako hiriburuan dauden eskultura publikoetako bat aztertuko dute: Flemingi eskainitako monumentua.

Azkenik, laugarren egunean, 'Argiaren bila' saila ardatz hartuta, paperak eta kartoia erabiliz, eguzkiaren argia bil dezaketen obrak sortzeari buruz hausnartuko dute neskato eta mutikoek, eta espazioak sortzeko ideia landuko dute paperaren tolesketaren bidez. Esperientzia amaitzeko, kanpoaldean eskultura bat egingo dute elkarrekin, kartoizko pieza handiak erabiliz.